

Ekoizpena

20  25





DIPC zentroaren XXV. urteurrena Victoria Eugenia Antzokian

Ekoizpena

2025. urtean, **Donostia Kulturako** Ekoizpen Unitateak 678 ekoizpen egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrear, San Telmo Museoan, Kursaal Elkargunean eta beste espazio batzuetan egindakoak batuta, baita 76 muntaketa-egun ere.

Ekoizpen horien artean daude **Donostia Kulturaren** jaialdiak, hala nola **Antzerki Azoka**, **Giza Eskubideen Zinemaldia**, **Jazzaldia** eta **Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea**. Nabarmentzekoa izan zen, halaber, **DIPC zentroaren XXV. urteurrena** ospatzeko Victoria Eugenia Antzokian egin zen gala.

2025ean, **Pintxoaren Institutuaren** egoitza ere izan zen Ekoizpen Unitatea, Victoria Eugenia Antzokiko oholtza gainean bertan egin zen afariarekin.

Donostia Kulturaren beraren ekoizpenez gain, 2025ean, beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini zitzaizkien ekoizpen-zerbitzuak, tartean, honako hauei:

- **Kursaal Eszena** programako kontzertuak (musika klasikoa eta herrikoia).
- **Urrezko Danborra** eta **Hiritar Merezimenduaren Dominak** emateko ekitaldiak, Donostiako udaletxean.
- **Musika Hamabostaldia**, Kursaal jauregian, San Telmo Museoan eta Tabakalera.
- **El Diario Vascoren** Eguberrietako kontzertua, Kursaal jauregiko Auditorioan.



DIPC zentroaren XXV. urteurrena Victoria Eugenia Antzokian



DIPC zentroaren XXV. urteurrena Victoria Eugenia Antzokian



Pintxoaren Institutuaren egoitza Victoria Eugenia Antzokian



Pintxoaren Institutuaren egoitza Victoria Eugenia Antzokian